

**GASTU ETA SARRERA**  
**KORRONTEEN EBOLUZIOA**

**GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA**  
**1990/2015 ALDIA (MILA EUROETAN)**

<b>ALDIA</b>	<b>GASTU KORRONTEA</b>	<b>SARRERA KORRONTEA</b>	<b>ALDEA</b>	<b>% S/SARRERA KORRONTEA</b>
<b>1990</b>	6.520,53	9.767,92	3.247,39	33,25
<b>1991</b>	8.071,19	10.863,01	2.791,82	25,70
<b>1992</b>	8.660,91	12.550,89	3.889,98	30,99
<b>1993</b>	9.455,00	12.336,71	2.881,71	23,36
<b>1994</b>	10.336,41	13.078,00	2.741,59	20,96
<b>1995</b>	11.335,96	13.896,06	2.560,10	18,42
<b>1996</b>	11.612,34	14.712,51	3.100,16	21,07
<b>1997</b>	11.628,60	15.224,81	3.596,21	23,62
<b>1998</b>	11.254,50	15.707,83	4.453,33	28,35
<b>1999</b>	11.577,06	17.340,55	5.763,50	33,24
<b>2000</b>	12.407,90	19.991,32	7.583,42	37,93
<b>2001</b>	13.480,12	18.784,16	5.304,04	28,24
<b>2002</b>	14.097,90	19.140,00	5.042,10	26,34
<b>2003</b>	15.733,28	21.070,81	5.337,53	25,33
<b>2004</b>	17.018,25	24.461,19	7.442,94	30,43
<b>2005</b>	18.469,92	24.549,39	6.079,47	24,76
<b>2006</b>	19.598,02	27.650,81	8.052,79	29,12
<b>2007</b>	20.676,12	28.870,84	8.194,72	28,38
<b>2008</b>	22.574,11	28.469,48	5.895,37	26,11
<b>2009</b>	23.229,39	26.072,10	3.390,10	12,77
<b>2010</b>	22.622,13	27.608,56	4.985,43	18,06
<b>2011</b>	22.555,87	25.631,82	3.075,95	12,00
<b>2012</b>	22.121,79	26.665,20	4.534,41	17,04
<b>2013</b>	22.534,30	27.335,60	4.801,30	17,56
<b>2014(1)</b>	23.460,00	28.845,70	5.385,70	18,67
<b>2015(2)</b>	25.230,45	29.944,61	4.714,16	15,74

(1) 2014ko aurrekontuaren itxierari buruzko aurreikuspenaren arabera

(2) 2015eko aurrekontuaren datuen arabera.



Koadro hau aztertzen hasi aurretik, komeni da hausnartzea Udal gastuaren egituraren zurruntasun handiagoari edo txikiagoari buruz, edo beste era batera esanda, hausnartzea gastu korrontean zer neurritaraino dagoen borondatezko izaerako gastu portzentaje garbia (bereziki Diru-laguntzak - IV. Kapituluari) eta, hortaz, neurri horretan, aldagarria den edo ez. Baiezko erantzuna emanez gero hausnarketa horri, horrek esan nahiko luke, borontate politikoa egonez gero, gastu korrontean murrizteko erabakiak hartu daitezkeela, krisi ekonomikoaren oraingo egoerari egokitzen saiatzeko, diru-sarrerak gutxitzeari aurre eginez (une honetan gertatzen ari denaren modukoa), eta gastu korrontean eta diru-sarrera korrontean artean maniobra marjina edo diferentziala geroago eta txarragoa ez izateko eta hura mantentzen saiatzeko. Azken finean, ez dugu ahaztu behar kopuru hori inbertsioak finantzatzeko edo gastuen beste behar berri batzuetarako finantzazio iturria izango dela.

Aurrekoa hausnarketaren kaltetan gabe, udal aurrekontuen datuak soilik aztertuta (1990-2013 epealdiko datuak benetakoak dira, itxierako likidazioetatik aterata, eta 2014-2015 epaldikoak balioespenak dira), eta kontsideratuz gastu korrontea dela Gastuen aurrekontuaren I. Kapitulutik IV. Kapitulara doan guztia batzea (langileak, ohiko erosketak, maileguen interesak eta transferentzia korrontek) eta diru-sarrera korrontek direla I. Kapitulutik V. Kapitulara doazenak batzea (zuzeneko zergak, zeharkako zergak, tasak, transferentzia korrontek eta ondarezko diru-sarrerak), gastu eta sarrera korrontean diferentzialaren (udal aurrezpena) eboluzioan, koadro honen bitartez argi bereizi ditzakegu ondorengo zikloak:

1990-1992 aldia; maniobra-margina edo gerakina naiko onarekin eta gastu eta sarreraren bilakaera orekatuarekin.

1996-1995 aldia; margina edo gerakina dexente murriztu zen, gastuaren gehikuntzaren erritmoa sarreraren gehikuntzaren alden azkoz altuago izan zela (gastuak >%10a urtero eta sarrerak, gutxigorabehera %5a).

1996-2000 aldia; gastuaren egonkortasunarekin batera sarrera arruntak handitu ziren, horrela aldea hobetuz.

2001-2003 aldia; diru-sarrera korrontek mantendu dira (urte baten jaitsi ere egin dira), eta horrekin batera gastua handitu egin da, eta horrek ekarri du diferentziala kaltetzea.


2004-2007 aldia; diru-sarrera arruntak nabarmen handitu dira, eta horrekin batera gastu arruntak gehitu egin dira, gehitu ere diru-sarrerak baino gehiago. Beraz, diferentziala ez da hobetu (ehunekotan, diru-sarreraren aldean apur bat okerragoa da).

2008-2015 aldia; nahiz eta gastuen kontrolaren saiakera egin, hain garrantzitsua izan den diru-sarreraren murrizketa, bere ondorioa izan da, sarrera arruntei buruz, bai kopuruetan bai portzentajeetan, diru sarrera – gastuen diferentziala aztertutako aldi osoaren baxuenak direla. 2015 ekitaldirako, aurrekontuen balioespenaren arabera, nahiz eta sarrerak dexente handitu (1,1 milioi, UFFFren eragina), diferentziala okertu da, oraingo honetan gastuetan izandako gehikuntzaren ondorioz (ia 1,8 milioi gehitu dira 2014ko itxierari buruzko

balioespenen aldean), horretarako 2015/1/1eko eraginaz desegin den Aukeako kontuek eta Udal Enplegu Planaren dotazioek (pertsonek kontratazioetarako eta enplegua sortzeko laguntzak) eragin nabarmena dutelarik.

Horrek behartzen gaitu hausnarketa sakona egitera, batez ere kontuan hartzen badugu diru-bilketa gutxiagoko egoera batean gaudela, eta zailtasunak izan ditzakegula erabaki batzuetan atzera egiteko (TAO, azpikontratatuak zerbitzuak, etab.). Garrantzitsua da adieraztea joera horrekin jarraituz gero hurrengo urteetan, dirusarrera-gastuen diferentziala murrizten doala apurka-apurka, eta horrela ezinezkoa izango da inbertsioak finantzatzea udal aurrezkien bidez.

### GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA 1990/2015 ALDIA



### GASTU ETA DIRU SARRERA KORRONTEEN EBOLUZIOA 1990/2015 ALDIA

